

94E/2025 EBAZPENA, abenduaren 11koa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailearena, irabazi-asmorik gabeko entitateen funtzionamenduan euskararen erabilera eta presentzia sustatzen dituzten hizkuntza planak eta ekintza solteak prestatu/ezartzeko eta eduki digitalak egokitzeko 2025eko laguntzak ordaintzea ebazten duena.

ERREFERENTZIA: **Espediente kodea: 0011-4410-2025-000000**

KUDEAKETA UNITATEA: Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua
Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua
Euskara
Tel.: 848 423224
Helbidea: Paulino Caballero, 13, 31002 Iruña
Posta elektronikoa: sustapena@navarra.es

ESPEDIENTEA

Espediente mota: Nafarroako Foru Komunitatean kokatutako irabazi-asmorik gabeko entitateen funtzionamenduan euskararen erabilera eta presentzia sustatzen dituzten hizkuntza planak eta ekintza solteak prestatu/ezartzeko eta eduki digitalak egokitzeko 2025eko laguntzak

Maiatzaren 13ko 56E/2025 Foru Aginduaren bidez, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko kontseilariak irabazi-asmorik gabeko entitateen funtzionamenduan euskararen erabilera eta presentzia sustatzen dituzten hizkuntza planak eta ekintza solteak prestatu/ezartzeko eta eduki digitalak egokitzeko 2025eko laguntzak onetsi zituen.

Ondoren, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak emandako abuztuaren 18ko 39E/2025 Ebazpenaren bidez, laguntzen deialdia ebatzi zen.

Zerbitzu kudeatzaileak egiaztatu du dirulaguntzaren helburuak bete direla, dirulaguntza jasotzeko eskubidea ematen duten baldintzak bete direla eta aurkeztutako agiriak baliozkoak direla.

Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendariak aldeko txostena aurkeztu du aipatutako laguntzak emateko.

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onetsi zituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, eta azaroaren 9ko Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen arabera,



EBATZI DUT:

1. Ondoko laguntzak ordaintzea taula honetan jasotako toki entitate onuradunei:

Esp. Zbkia	IFZ	IZENA	AURREKONTUKO PARTIDA	ZENBATEKOA
0011-4410-2025-000001	G31715899	FUNDACION CLUB ATLETICO OSASUNA	G/ B30002-B3200-4819-334113	48.373,82
0011-4410-2025-000002	G31959513	ASOCIACION ALLOTARRA DE AGRICULTURA Y GANADERIA ECOLOGICA	G/ B30002-B3200-4819-334113	16.250,00
0011-4410-2025-000003	G31523715	ASOCIACION DE DAÑO CEREBRAL DE NAVARRA	G7 B30002-B3200-7819-334103	1.512,50
0011-4410-2025-000004	G31591217	FEDERACION DE ASOCIACIONES DE PADRES Y MADRES DE ALUMNOS SORTZEN GURASOAK	G7 B30002-B3200-7819-334103	1.733,56
0011-4410-2025-000005	F71434047	GARAIAIN, SOCIEDAD COOPERATIVA	G/ B30002-B3200-4819-334113	471,93
0011-4410-2025-000006	G71149397	FUNDACION ADITECH	G7 B30002-B3200-7819-334103	1.561,43
0011-4410-2025-000008	G31428303	ASOCIACION NAVARRA DE ASUNTOS RELACIONADOS CON LA ECOLOGIA - LANDARE	G7 B30002-B3200-7819-334103	2.090,11
0011-4410-2025-000009	F71345946	GELTOKI SOCIEDAD MICROCOOPERATIVA	G7 B30002-B3200-7819-334103	2.102,40

2. Ondoko taulan agertzen diren diru-kopuruak askatzea:

Esp. Zenbakia	IFZ	IZENA	AURREKONTUKO PARTIDA	ZENBATEKOA
0011-4410-2025-000001	G31715899	FUNDACION CLUB ATLETICO OSASUNA	G/ B30002-B3200-4819-334113	11.896,17
0011-4410-2025-000002	G31959513	ASOCIACION ALLOTARRA DE AGRICULTURA Y GANADERIA ECOLOGICA	G/ B30002-B3200-4819-334113	95,00
0011-4410-2025-000009	F71434047	GARAIAIN SOCIEDAD COOPERATIVA	G/ B30002-B3200-4819-334113	7.913,08

3. Ebazpen hau jakinaraztea aurreko zerrendako eskatzaile guztiei eta igortzea Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarakoan duen Kontu-hartzailetza Delegatura, aipatutako departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta haren Kontabilitate Zentrora, Euskarabideko Euskara Sustatzeko Atalera eta Gai Administratiboak, Langileria eta Azpiegiturak Kudeatzeko Atalera, bai eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalera ere, bidezko ondorioak izan ditzan.

4. Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Iruñean, 2025eko abenduaren 11an

EUSKARABIDEA-EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA
Javier Arakama Urriaga

